HIRITAR MEREZIMENDU DOMINAK

Agintariak, lagunok, arratsalde on guztioi.

Ordu gutxi batzuk baino ez dira falta gure hirian festa lehertzeko. 24 orduz Donostiarrak urte guztiko egunik seinalatuena dugun hauxe bizitzeko.

“Gaurtandik gerora, penak zokora... Festara!”

Gaurkoa, San Sebastian bezpera, ospakizun eguna da.

Eta antiguotar batek, Imanol Larzabalek, kantatzen zuen bezala:

“*Mundua ez da beti jai*
Inoiz tristea ere bai
Baina badira mila motibo
Kantatzeko alai”

Eta guk, baditugu hainbat arrazoi kantatzeko, dantzatzeko eta ospatzeko alai.

Gaurkoan, gure hiriaren alde lan egiten duten pertsona eta erakundeak errekonozituko ditugu.

Gaurkoan, gure hiriaren baloreak azpimarratuko ditugu.

Gaurkoan, donostiar izateaz arro egoteko hamaika arrazoi entzungo ditugu.

Hoy, a pocas horas de que estalle la fiesta, nuestra fiesta, vamos a reconocer a personas y entidades, que por encima

de ideologías, se caracterizan por amar y hacer prosperar la ciudad.

No tengo dudas de que dentro de Donostia hay muchas Donostias. Hay muchas ciudades dentro de la propia ciudad. Muchas maneras de entenderla y de vivirla. No hay una sola Donostia, no hay una sola San Sebastián. Vivimos en una Ciudad que se transforma permanentemente. Una Ciudad que sabe abrazar lo nuevo sin dejar a un lado su origen.

‘’Ez ditzagun ahaztu antzinako doinuak, merezi badute, eta onar ditzagun doinu berriak onak badira.’’

Hori da Juan Ignazio Iztueta euskal idazleak txistu doinuari buruz idatzita utzi zuena.

Pertsona askoren lana eta esfortzuari esker da posible gaurko ekitaldia, merezimendu asko dago honen guztiaren atzean. Eta bada, urte luzez, ekitaldi honen txistu doinuaz kezkatu denik. Jose Ignazio Ansorena, besteak beste. Txistuaren doinu berriak eta zaharrak josteko ardura izan du hamarkadetan.

Gaurko hitzak, eskerrak emateko aprobetxatu nahi dut, Udalak antolatu izan dituen ekitaldi askok merezi zuten txistu soinua zaintzeagatik, eta jakina, geure ondare musikatua bizirik mantentzeagatik.

Eta noski, ongi etorri Aitor Arozena. Ttunttunero kuadrila honen zuzendari berria.

Hay obras de amor, obras de sentimiento, pero las que más duran son las del Ayuntamiento. Hori da Arozenak aurreko igandean bota zuen esaldia San Sebastian eguneko aurreko kontzertuan. Nik beste batekin erantzungo dut:

‘’Nolako Txistulari Taldea, halako Udala’’ dio esaerak. Ba, egin ezazue lan fina, asko eskertuko dizue Donostiak eta.

Pero hoy estamos aquí para reconocer y para celebrar. Para reconocer a quienes con su trabajo hacen posible que Donostia sea una Ciudad mejor, mas amable, mas inclusiva, mas justa, y que no pierda una se sus características mas importantes: La de ser una comunidad.

Esa es la lección que recordamos año tras año con estos 5 reconocimientos.

Hoy es también un **día de celebración**. De celebración con la familia, con los amigos, con la cuadrilla, con la sociedad… con aquellos a los que vemos una vez al año, o incluso con quienes no conocemos, pero con quienes compartimos un sentimiento de pertenencia.

Es un día de **celebración de la vida**. De la fiesta. De las ganas de vivir.

No hace tanto que nos tocó vivir este día encerrados en casa, sin poder salir a la calle, sin poder tocar el tambor. Conviene que no lo olvidemos para valorar lo que tenemos, lo que hoy sí podemos hacer.

En medio de la fiesta y del jolgorio, hacemos un hueco y reconocemos a aquellas organizaciones y personas que trabajan para hacerla un poco mejor.

ADSIS Fundazioa,

Zailtasunak dituzten pertsonei eskutik helduz eta itxaropen berriak zabalduz, lan isil baina sakona eginez, iluntasuna argituz.

Desde hace 56 años estáis trabajando para echar una mano a las personas en situación vulnerable. A aquellos que como dice Isabel, son centrifugados del sistema educativo, dándoles una nueva oportunidad. Son muchas, cientos, las personas que habéis ayudado y gracias a vuestro apoyo han encontrado razones para vivir y salir adelante.

ATECE

Garuneko kalteak dituzten familiengandik gertu egonez, 30 urtez. Zailtasunak zailtasun, bizitzan trantze latza bizi dutenengandik hurbil, bizimodua xamurragoa eginez.

Baina ez hori bakarrik. Baita ere errealitate bat gizartearen aurrean ikusgarri eginaz. Gure gizartean horren beharra ere badaukagu.

Trabajáis y conseguís que muchas personas y muchas familias encuentren apoyo, luz y consuelo para afrontar el duro trance que les ha tocado vivir.

Bizikletan Adinik ez

Una iniciativa preciosa, y gracias a la cual las personas mayores con dificultades pueden moverse por la ciudad en bicicleta, volver a sus lugares queridos, ver el mar o disfrutar

de un paseo por su ciudad. Una actividad tan sencila como agradable que llena de vida y enciende las caras de sus usuarios y usuarias.

Elkartasun keinu ederra, gure Hiria komunitatea dela bistan jartzen duena, puskaezinak diren loturak sortuz. Gure hiritarrak zainduz.

Angel Rueda Aramaio

Ciudar a las personas también es atenderlas con calidad, con tiempo, mirándolas a los ojos y pregutándoles por las pequeñas cosas del día a día. Ejemplo de ello es **Angel** desde el familiar comercio **Rucal** en la calle Fermín Calbeton de la Parte Vieja.

Negocio familiar, ya que tomó el testigo de su padre. Quien le enseñó el arte del cuidado y de la atención.

Bonito detalle, para quien se haya dado cuenta, en la fachada cercana al comercio Rucal, guardan nuestros sueños y recuerdos la placas en honor a Fermín Calbeton o Fermin Lalasa, este último más conocido como Duque de Mandas.

Pero más curioso es aún que al igual que la luces del comercio Rucal, está también encendido el recuerdo (en forma de placa) de Raimundo Sarriegi, a la altura de la antiguamente llamada calle Puyuelo 38. Esa luz, hoy brilla más que nunca.

y Mentxu Medel

Pertsonak zaintzea ere bada, pertsonak formatzea, heztea eta prestatzea. Halaxe egin du urte askoz **Mentxu Medel** dantza irakasleak. Dantza grina dutenei erantzuna emanez, eta baita mundu zabalera dantzariak bidaliz.

50 años pasan rápido según Mentxu, pero 50 años representan mucho trabajo. Un buen trabajo. Porque a pesar de las dificultades y de las limitaciones que la danza pueda tener en nuestra Ciudad, personas como Mentxu han conseguido, muchas veces sin que seamos lo suficientemente conscientes, que el mundo esté lleno de grandes bailarines y bailarinas que han salido de nuestra Ciudad.

Zorionak guzti-guztioi eta eskerrik asko Donostiaren alde egiten duzuen lanagatik.

Urtero diot, eta aurten ere esango dut: zuei esker, gure hiria hobea da.

Gracias a vuestro trabajo, nuestra ciudad es mejor, porque llegáis allí donde otros no podemos o no sabemos llegar.

Ospatu ditzagun geure hiriko balio positiboak behar duen moduan. Hauek dira geure garaipen handienak eta.

Eskerrik asko, Zorionak eta Gora Donostia!!